

AGNH-ren NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA EGINDAKO MANIFESTUA

2025eko urriaren 27a

Diputatuen Kongresuan egin genuen Jardunaldia eta urtebete geroago, **EZ dugu EZER lortu**, AGNH duten pertsonen eskaerei MUZIN egiten dien Ministerio baten isiltasuna besterik ez dugu. Erantzukizun falta agerikoa erakusten duten arduradun ezgai batzuen jarrera lotsagarria dela iruditzen zaigu.

Argi daukagu: **EZ DIEGU AXOLA.**

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua, herritar orori OSASUN PUBLIKOA bermatzen diola adierazten du. Politikari horiek, egun osoa elkarri harriak jaurtitzen eta besteren hutsetatik probetxua ateratzen pasatzen duten horiek, aho bete hartz diote horrela dela. Baina ez, jaun-andreok: **EZ DA HORRELA.**

EZ DA OSASUN SISTEMA UNIBERTSALA, EZ DAGO OSASUN MENTAL PUBLIKO ETA ERREALIK GUZTIONTZAT.

Familiak, AGNH duten seme-alabak dituztenean, derrigortuta daude profesional pribatuetara jotzera edo, ostera, umeei behar duten OSASUN MENTALAREN ARRETA ukatzera. Horrek argi erakusten du osasun mentala ez dela guztiontzat. ETA KASU HORIEK BADIRA, EZ DEZALA INORK ZALANTZAN JARRI.

AGNH duen pertsona heldu bat osasun mentaleko profesional baten kontsultara joan, eta honakoak entzun behar dituztenean: *“hau asmakizuna da”, “hona iritsi bazara, zer nahi duzu orain?”, edo “ez gaude horrelako gauzak artatzeko”*... Hau ez da osasun publikoa guztiontzat izatea.

“Bigarren mailako” pazienteak bagina bezala tratatzen gaituzte. Nekatuta gaude diagnostikoa etengabe zalantzan jartzeaz, azkenak artatzeaz edo kontuan ere ez hartzeaz. Nekatuta gaude gure egoera gutxiesteaz eta gure ahotza isilarazteaz. Azken finean, **EZ GAITUZTE KONTUAN HARTZEN.**

Urteak daramatzagu entzuten politikariek eta gizarteak OSASUN MENTALAZ “kontzientzia” dutela eta ORAIN hasi direla benetan garrantzia ematen. Baina... zenbat pertsona galdu ditugu bidean, gizarteak ulertu arte osasun mentala BENETAN garrantzitsua dela?

Baina, zertan jartzen dute fokua?

LARRITASUNEAN. Hau da, nahasmendu larriak daudenean, suizidio-saiakerak gertatzen direnean, guraso-semeen arteko erasoak, autoritatearen aurkako erasoak edo delituak daudenean.

Orduan bai, eskuak buru gainera eramaten dituzte eta, “magiaz”, dirua agertzen da: larrialdietarako unitateak irekitzen dituzte, epe ertaineko eta luzeko ospitaleratze-unitateak sortzen dira, tiraderan gelditzen direnak protokoloak idazten dituzte... eta, gainera, argazkiak ateratzen dituzte haien inplikazioa goraipatuz. Baina denok dakigu zerbitzu horiek ez direla NAHIKOAK. Eta zergatik ematen dira kasu horiek? Arrazoi SINPLE batengatik:

Lehen sintomei ez badiegu kasurik egiten, neurogarapeneko nahasmenduei—AGNHren kasuan bezala— lehen urteetan garrantzia kentzen badiogu, etorkizunean gazteak askoz ere egoera larriagoetan aurkituko ditugu.

Hautzaroan behar bezala artatu ez zituztelako, AGNH pairatzen duten zenbat pertsonak, denborarekin gaixotasun larriagoak garatu dituzte? INOR ez da erantzutera ausartzen, baina AGNHrekin bizi garenok badakigu errealitatea: TAMALEZ, asko eta asko dira. Gainera, badakigu batzuk bere buruz beste egitera ere iritsi direla garai batean osasun arloko profesional baten erantzun arduragabe bat entzun zutelako: *“hau ez da osasun-arazo larria; hezkuntza-mugen falta baizik”*.

Pertsonak lehen sintometatik artatuko balira eta PREBENTZIOAN inbertituko balitz, benetan beharrezkoak lirateke **“muturreko esku-hartze”** horiek?

ESKAERAK ETA PROPOSAMENAK

- 1. AGNH duten pazienteei arreta publikoa, goiztiarra eta prebentiboa bermatzea.** Sintomatologiaren larritasuna eta arreta multidiziplinarraren faltak dakartzan arriskuak kontuan hartuko dituen ikuspegi integrala behar da. **Espainiako GOBERNUARI** ozen eskatzen diogu gure kolektiboa garaiz artatzea; unitate akutora iritsi aurretik edo bizitzak ez duela merezi erabakitzea heldu aurretik.
- 2. AGNH** bizitza osoan zehar behar den arretarekin **aitortu eta tratatzea**, nahasmendu kronikoa dela baieztatuz eta berretsiz.
- 3. OSASUN MINISTERIOAK** gure ahotsa entzun dezala, BEHIN BETIKO.
BILERA ORAIN!

#TDAHsinatencionsanitaria